



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@terra.es

2012KO ABUZTUAREN 2KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2012.08.02.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.,

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Bertaratu ez direnak:

Imanol Artola Guridi jñ.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Azkeneko aktaren onespena.

2.-Arantzako ehiza kotoaren behin betiko esleipena.

3.-Mendiko lanak.

4.-2012ko bestak.

5.-Alkatearen ebazpenak.

6.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2012ko ekainaren 29an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ARANTZAKO EHIZA KOTOAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

Arantzako Udalak 2012ko maiatzaren 4an egindako bileran Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industri, Enplegu eta Ingurugiro Departamentuari Arantzako udalerriko lurak ehiza barrutia eratzeko eskaera egitea erabaki zuen.

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro eta Ur Zuzendari Nagusiaren 2012ko ekainaren 15eko 693. ebazpenaren bidez baimendu du Arantzako ehiza barrutia (3.007,00 hektarea).

Hori dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako ehiza probetxamendua esleitzeko baldintzak onartzea eta Usua izeneko Tokiko Ehiztarien Elkarteari esleipena zuzenean emateko 2012ko maiatzaren 4ko akordioa berrestea.

2) Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurugiro Departamentuari jakinaraztea Usua Tokiko Ehiztarien Elkartearen IFZ G31397128 dela behin betiko esleipenduna eta lehendakaria Xabier Zugarramurdi Alzuri (Larreta karrika, 5, Aterpe, 31790-Arantza, 948-634179 telefonoa)

3.-MENDIKO LANAK.

Arantzako Udalak diru laguntza eskatu du Nafarroako Gobernuari mendiko hainbat lan egiteko, Basartea enpresak egindako proiektuaren arabera.

Lan batzuk udan egitea beharrezkoak dira: udako garbiketak (4.351,16 euroko aurrekontua dute proiektuan, BEZ barne).

Kontuan hartuz dugun garaia,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ondorengo enpresei gonbidapenak bidaltzea, 2012ko abuztuaren 10erako proposamenak aurkezteko: Carlos Txoperena Matxikote, Pako Alzuri S.L., Etxarte Martinez S.L.,Berdabio Basogintza S.L. eta Beñat Azpillaga.

2) Enpresei jakinaraztea lanak 2012ko abuztuaren 31rako eginak egon behar dutela.

4.-2012KO BESTAK.

Ikusirik 2012ko bestetako egitaraua, 14tik 17ra, biak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2012ko bestetako egitaraua onartzea.

5.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 57etik 70. arte).

6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta legeak eskatzen duen gehiengo izanik ondorengo gai hauek aztertu dira:

7.-2011KO KONTUAK: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2012ko ekainaren 1ean egindako bileran, erabaki zuen 2011ko Kontu Orokorreari aldeko txostena ematea eta espedientea 15 egunez jendaurrean paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkezteko.

Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2011ko kontuen espedientea behin betikoz onartzea.

2) 2011ko kontuen espedientea Nafarroako Gobernura bidaltzea.



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Jaime Iturria Mitxelena jn.



